



Bertsozale Elkartearen Berripapera

| | |
|--------|-----------------|
| ESPAÑA | FRANKEO |
| | ITUNDUA |
| | FRANQUEO |
| | CONCERTADO |
| | ZK/NRO 37000126 |

Bertsozalea

www.bertsozale.eus

2018ko ABENDUA - 199 zenbakia

Larunbatean jokatu da Bilbon Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finala

Zortzi bertsolari oholtzaratuko dira Miribillako Bilbao Arenan, 17:00etan. Saiora joateko garraio publikoa erabiltzea aholkatzen da.

Finalaren bezperatan elkartu dira 2018ko Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalistak Miribillan, Bilbon, prentsaren aurrean. Kanporaketak atzean utzi eta finalurrekoen langa igarota, zortzi bertsolari ariko dira han abenduaren 15ean kantari: Aitor Bizkarra, Eneko Abasolo "Abarkas", Etxahun Lekue, Jone Uria, Miren Amuriza, Nerea Ibarzabal, Onintza Enbeita eta Xabat Gallettebeitia. Irabazleari Jon Enbeita bertsolariak jantziko dio txapela.

17:00etan hasiko da saioa larunbatean; atek ordu eta erdi lehenago, 15:30ean, zabalduko dira.

Finaleko sarrerak eskuratzeko bi bide daude: batetik, www.bertsosarrerak.eus atarian eskura daitezke. Bestetik, egunean bertan txarteldegia zabalduko da Bilbao Arenako kanpoko aldean, 12:30etik aurrera.

Bazkideek eta gazteek deskontuak edukiko dituzte sarreretan.

Garraio publikoa, umeen gunea eta premia bereziak

Bilbao Arenara heltzeko, garraio publikoa baliatzea gomendatzen da. Bilboko metroan joango zarenontzako egokiena Alde Zaharreko geltokian geratzea da, Unamunoko atetik irten eta Miribillara oinez joatea. Euskotrenez joango zarenok Atxuriko geltokia duzue egokiena, eta handik Miribillara oinez.

Aurten ere umeen gunea egongo da saioak irauten duen bitartean. Hezitzaileak egongo dira eta gurasoek edo arduradunek ere han egoteko aukera izango duzue. Izena aurretiaz ematea gomendatzen da; horretarako bizkaikotxapelketa@bertsozale.eus

helbidera idaztea edo Bizkaiko Bertsozale Elkartera deitzea nahikoa da, 946 812 711 zenbakira.

Gurpildun aulkian etorri gero ere aurretiaz jakinaraztea gomendatzen dizugu, horrela beharrezko argibideak zuzenean helaraziko zaizkizu. Helbide berean, bizkaikotxapelketa@bertsozale.eus helbidean, eman daiteke izena.

Bizkaiko Bertsozale Elkarteak eskertu egin gura du txapelketaren antolakuntzan aritzen direnen beharra, eurak barik ezingo litzatekeelako txapelketarik egin: talde antolatzaileko kide, epaile, gai jartzaile, komunikazio taldeko kide, bertso eskola, eta boluntario beharretan aritzen diren guzti-guztiei, eskerrik asko!



IBON AJURIAGOJEASKO GARMENDIA
Lekeitio, 2018-12-01

Doinua: Lurraren pean sar nindaiteke

Zein ederra dan gaur paparretan
ikustea hainbat txapa
gure ohituren aldaketa hau
orain aurrera doa ta
egutegian markatuta neukan
nik abenduaren bata
amua bota bota egin dot
baina falta zan karnata
ni finalera lasai joango naz
ederra izango da ta. (bis)



15:30ean zabalduko dira Bilbao Arenako atek. / XDZ

Barañainen egingo da 2019ko Bertso Eguna

Gorde urtarrilaren 26a, egun osoko ospakizuna egitera goaz eta. Bertso Eskolen Eguna ere orduan ospatuko dugu eta, hain zuzen, bertso eskolak izango ditu gai arratsaldeko emanaldiak.

Urte hasieran Donostiatik kanpo abiatu zuen bideari segika, berriro ere kokalekuz aldatuko da Bertso Eguna. Azkena Mungian egin zen, eta urtebete ibilian eginda Barañainera helduko da urtarrilaren 26an.

50. edizioa izango du Bertso Egunak eta, ohi bezala, egun osoko egitarau beteak dakar. Hasteko, gainera, ez dugu edonolako proposamena, Lanku Kultur Zerbitzuen eskutik, emanaldi berri baten lehen saioa eskainiko baita: *Enkarguz* izeneko emanaldiaz gozatu ahal izango dugu 11:00etatik aurrera Alaitz ikastetxean, Andoni Egaña bertsolariarekin eta Xabier Zabala musikariarekin.

Eguerdian, tabernaz taberna jai giroan ariko dira bertsolariak kantuan: Alaia Martin, Miren Artetxe, Saioa Alkaiza, Unai Iturriaga eta Xabi Igoa ariko dira, besteak beste. Jarraian, bazkaria eskainiko da.

Bertso eskolak izango dira arratsaldeko emanaldiaren haria; Nerea Ibarzabal bertsolari eta Txakur Gorria kolektiboko kidea, eta *Aulki Jokoa* saioan aurkezle ezagutu genuen Edurne Azkarate aritu dira prestaketa lanetan.



Gauean ospakizuna jarraitu nahi duenak ere izango du aukerarik, kontzertuak izango baitira Barañainen bertan.

Xehetasun gehiago izango dituzu Gabonen ondotik, bai BertsoZalean zein Bertsozale Elkartearen web gunean ere; baina gorde urtarrilaren 26a.

Bertso Eskolen Egunak ere bat egingo du

Bertso Eguna urte hasieran ospatzen da eta udazken hasieran Bertso Eskolen Eguna. 2019an, ordea, biak elkarrekin ospatuko ditugu. Hala, aipatu bezala, bertso eskolak izango ditu gai Bertso Eguneko emanaldiak.

Bestalde, Nafarroako Bertsozale Elkarreak urteroko batzarra egiteko baliatuko du hitzordua. Urtarrilaren 26an Barañainen egingo du, kultur etxean, 09:30ean.



Mungian egin zen aurtengo Bertso Eguna. / XDZ

Euskal sortzaileak *Buruz buru* jarri ditugu

Bertsolariak eta beste zenbait arloko sortzaileak puntu-erantzunetan jarri ditugu. Lanku Kultur Zerbitzuen atarian, www.lanku.eus gunean, eskura dezakezu argitalpena.

Igor Elortza eta Joseba Sarrionandia; Uxue Alberdi eta Danelle Sarriugarte; Julio Soto eta Gorka Urbizu; Nerea Ibarzabal eta Eneko Sagardoy; Andoni Egaña eta Ruper Ordorika; Onintza Enbeita eta Maite Berriozabal; Manex Agirre eta Ilaski Serrano. Horiek dira Lanku Kultur Zerbitzuen argitalpen berrian buruz buruz jolasean jarri ditugun zazpi bikoteak.

Bat-bateko hizkuntza errimatu eta neurtua alde batera utzi, eta hitz lauz egindako puntu-erantzun ariketan jarri ditugu bertsolariak eta beste arlo batzuetako euskal sortzaileak; lehenek bigarrenen proposatutako abiapuntuari erantzun diote. Narrazioetik hurbil daude batzuk; saiakeratik besteak. Hausnar-

ketarako gai interesgarriak mahaigaineratu dituzte, nolana ere, bikote guztiek.

Zazpi liburuxkek osatzen dute *Buruz buru* argitalpen kutxa. Malen Amenabar ilustratzaileak eman dio irudia proiektuari. Aipatzekoa da, bestalde, editore lanetan ibilbide luzea duen Gorka Arreseren aholkularitza.

Lanku Kultur Zerbitzuen web gunean eskura daiteke *Buruz buru*.

What is bertsolaritza?: bertsolaritzaren nazioarteko erakusleihoa

Ingelesez ekoiztako ikus-entzunezkoak bertsolaritza atzerrian ezagutzera emateko xedea du.

“Gehien txunditzen nauena komunikazio-erregistro unibertsal bat indartzeko ahalmena da”, aipatzen du Paolo Zedda inprobisatzaile sardiniarrak *What is bertsolaritza?* ikus-entzunezkoan. Izan ere, atzerriko begientzat bertsolaritzak badu berezitasunik; ez da ohikoa ahozko kantu inprobisatuak horrenbeste zale elkartzea eta, zenbaitetan, zuzenean ikusi ezean, bakantasan hori ulertaraztea ez da lan erraza izaten. Ahalegin hori hutsean ez geratzeko helburuz sortu da *What is bertsolaritza?*.

Ordu erdi eskaseko ikus-entzunezkoa da. Ingelesez gauzatu da eta euskarazko, gaztelarazko eta frantseseko azpitoluak jarri zaizkio. Bertsolaritzaren jatorri eta testuingurutik hasita, eta Bertsolari Txapelketa Nagusia aitzakia hartuta, kantu inprobisatuaren deskribapena egiten da. Modu erakargarri eta argian azaltzen da, gainera, bertsoaren sormen prozesua: horretan, Maddalen Arzallus jarri dugu lanean. Ikus-entzunezkoarekin batera, gai unibertsalen inguruko bertso bilduma batek osatzen du proiektua.

Etxepare Euskal Institutuak eta Mintzola Ahozko Lantegiak elkarlanean garatutako ekoizpena da *What is bertsolaritza?*, Laboral Kutxaren babesarekin. Abenduaren 4an aurkeztu zen Tabakalera (Donostia), eta aurrerantzean nazioartean aritze diren aditu, bertsolari eta gainerako eragileentzako tresna baliagarria izango delakoan gaude, bertsolaritzaren erakusleihoa.



What is
bertsolaritza?

Ekoizleak



Babeslea





Puntu jarrita

ALAZNE UNTXALO ERREGERENA

Iker, urte luzetan elkarbanatu izan ditugu bai bertso eskola baita plaza ugari ere. Eroso nagoen lekuan, gozatzera iritsi naiteke eta kantu kideon arteko konfiantzak horretan lagundu dezake. Azken finean, bertso saioa elkarrekin osatu behar izaten baitugu.

Niretzat bertso eskola bertsotan egiteko espazio bat baino askoz gehiago da. Kantatu, entzun, egon, iritziak trukatu, animatu, bata bertzearengandik ikasi, baloratu... Gogotsu elkartzan naiz astero kantu kideekin.

Egia da bertso eskolatik bertso plazara jauzi handia dagoela eta askotan, zaila izaten da bi oinen gainean erortzea, saio batean kanpo faktore anitzek eragiten baitute.

Orotariko esperientziak bizi izan ditugu, batzuk bertzeak baino hobek baina guztietatik ikasten dugu zerbait.

Izan ditugu bertso poteoak, non tabernetara sartu eta tabernariari musika itzaltzeko eskatu behar izan diogun. Gogoratzen dut bertze behin bazkaritara kantatzera joan eta "Aizu, neska, altxa hortik! aulki horiek bertsolarietako gordeta daude" esan zidatenekoa. Bertze askotan, aldiz, jendea zehazki bertsoa entzuterara etortzen da; eskertzekoa ere izaten da herri batera iritsi eta antolatzaileen harrera goxoa.

Lekua, saioaren formatua, entzulearen perfila, kantu kideak, norberaren aldatzea, denak du eragina bertso saio batean. Hasieratik bertsolarion arteko hartu emana, elkar laguntza, konfiantza... garrantzizkoak dira saio bati ekiterako tenorean.

Beti ez dugu, ordea, ezagutzen ditugun bertsolariekin kantatzen, baina jende berriarekin harremana egiteko aukera ematen digute saioek, baita leku berriak ezagutzeko ere. Nire ustez, bertsolaritzak ate asko zabaltzen dizkigu. Badira horren bueltan ezagututako lagunak, bertsolaritzaren inguruko bertze ikuspegi bat eskaintzen digutenak.

Joan den urtean ezagutu nuen Aitor Larreta. Baztan bailaran bizi dena, baina, bertsoarengatik izan ez balitz akaso ez nukeena bistaz bertzerik ezagutuko.

Aitor, orain taldekoa zaitugu. Bertsolaritzaz gozatzeko zure modua duzunez zera jakin nahiko nuke:

Zer da zuretzat bertsolaritza, zer ematen dizu zaletasun honek?

Gogoetak emandakoa antolatzen

Azaroaren 10ean eta 11n, 100 bazkide baino gehiago elkartu ginen Barriako aterpetxean. Bertsozale Elkarteen Gogoeta Estrategikoaren hirugarren fasea gauzatzeko hitzordua izan zen: aurreko faseetan hausnartzekoak ziren gaiak atzemandu eta horren neurria ekarritako gaitegia zehaztuta, taldeka aritu ginen iritziak partekatzen. Horretarako, Farapi Kooperatibako kideek gidatutako dinamikak baliatu ziren. Bertsozale Elkarteen helburu orokorraz eta definizioaz zein jarduteko moduz aritu ginen, hezkuntza proiektuak, plaza, komunikazioa eta generoa hizpide.

Orain talde dinamika hark emandako ondorioak antolatzen ari gara. Gainera, gogoeta hainbat fasetan ari gara gauzatzen eta hurrengo fasean elkarteen egitura izango dugu aztergai.

Laster izango duzue emaitzen berri.



Bertsozale Elkarteen batzarrak

2019ari begira, lurraldeetako zein Euskal Herriko Bertsozale Elkartea ari dira batzarrerako eguna finkatzen: urtarrilaren 26an egingo da Nafarroakoa; otsailaren 2an, Arabakoa; Gipuzkoako Bertsozale Elkartea otsailaren 14a gorde du; Bertsularien Lagunak elkartea otsailaren 16a biribildu du egutegian; eta bizkaitarrek martxoaren 16an egingo dute. Batzar Nagusia, berriz, apirilaren 6an. Tokiak zehaztuko zaizkizu aurrerago.



14 SORTZAILE JOLASEAN

Igor Elortza-Joseba Sarrionandia
Uxue Alberdi-Danele Sarriugarte
Julio Soto-Gorka Urbizu
Nerea Ibarzabal- Eneko Sagardoy
Andoni Egaña-Ruper Ordorika
Onintza Enbeita- Maite Berriozabal
Manex Agirre- Ilaski Serrano